

BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

ETXAIDE 6



Egile eta data ezezagunak

Deskribapena.

Kantoiko eraikina, hustua eta birgaitua, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituena, gehi bi jasodura mantsardatu eta kantoiko dorrea. Harlangaitzezko fatxada, entokatua, harlanduzko azpadurak dituena. Hormigoizko begiratokia kantoiko alakan, 1940koa. Konposizio bateratua San Martzial 8rekin eta 10ekin. Ez dago jatorrizko eraikinaren eraikuntza-espeditierik, ezta San Martzial 8 eta 10ena ere, baina baliteke J. Goicoak 1887an egindakoak izatea.

Babes erregimena.

- 1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodura mantsardatuak (5. eta 6. goi oinak); dorrea.
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harrizko fatxadako fabrika.
 - C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
 - * Dorrea ezabatzea (5. eta 6. goi oinen altueran kokatua).
 - * Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.
 - * Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak.